

Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARIA ETA IDAZLEA

Bannockburn–Amaiur

2

012 hau guri emateko eskatu beharko genioke David Cameron britainiar lehen ministroari, eskoziarrek orain bertan nahi ez dutenez. Hau Ingalaterraren urtea da,

Olinpiar Jokoeekin eta enparauekin, eta horrek britainiar nazionalismoa hauspotzea espero du *toryak*, 2014, Bannockburn-go batailaren 700. urteurrena, Eskoziaren urtea izango delakoan. Eta norbaitek esan beharko lioke ingeles maiteenetakoak esan zuela “*Navarre shall be the wonder of the world*”.

Azaroan Matalazen exekuzioaren 350. urteurrena gogorarazi ere ez dugu egin. Erresumaren konkistaren 500.ak zerbait gehiago ekarriko du, baina hori ere joango da. Egia da ez dugula independentzia horregatik behar, baina geure teilatuari harririk ere ez diezaiozun bota, eta baliatu dezagun geure interesean, beste batzuek beren Cadiz eta Navas de Tolosa baliatuko dituzten gisan. Eta sinboloek eta historiak badute lekuri, Euskal Herria eta haren lurraldetasuna ukatzen diren eskualdeetan batez ere. Besterik da egungo estrategiak ordutik argudiatzea. Horretarako gogoratu behar da Eskoziaren independentzia erreferenduma ez dela oinarritzen ez 1707ko Bata-sunean, ez nazio izaieran, ezta autodeterminazio eskubidean ere. Londresek Eskoziari ezer



INGO AZKONA



Independentzia

erreferenduma adostu

beharko lukete mahaia

osatzen duten

bi hanka abertzaleek



aitortu beharrik ez dago. Gatazka armaturik gabeko eta demokrazia egoeran, autodeterminazioak beharrean, printzipio demokrati-koak oinarritzen du Eskoziaren (eta Euskal Herriaren, Espainia demokratikoa izateko-tan) independentziari buruzko galdeketa.

Urte erabakigarria da 2012. Euskal Herri-ko eremurik autonomoenean, mendebaldean, hauteskundeak aurki dira. Eta une historikoan datoz. Independentzia erreferenduma adostu beharko lukete mahaia osatzen duten bi hanka abertzaleek. Promesa argia egin: lehendakari bagara independentziari buruzko galdeketa egingo dugu. Deitu Erkoreka, Urkullu, Otegi zein Etxeberria, bere programan Eskoziako galdera sartu behar du. Eta ez eskoziar abertzaleena, David Cameronen galdera argia baizik: “Nahi duzu Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako erresuma uztea eta estatu independente gisa eratzea?”

Hiru herrialdeetarako? Galdetuko dida-zue. Tamalez, bai. Eta karta hori mahai gainean dutela negoziatu Espainiarekin: edo hiruren independentzia eskaria onartu, edo lauren autonomia adostu eta horri buruzko galdeketa egin. Oiarzabalek esan zuen, azken batean, PP nagusitu zela Euskal Herrian. ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Ilobarekin parkean nengoen eta gainontzeko ama eta aitekin sartu nintzen elkarrizketan. Horrelakoetan deigarria egiten zait gurasoen artean dagoen korporatibismo eta elkartasuna: denek antzeko gauzak debekatzen dizkiete haien seme-alabei eta gisako gauzak egiten utzi. Arauetatik ateratzen dena arrarotzat hartzen dute, ia guraso txartzat batzuetan.

Eskolara bakarrik joaten den haur bati buruz ari ziren hizketan. Non bizi zen galdetu nuen, autobiaz bestaldean biziko zela pentsatuta, baina herrian bertan bizi zen. Espaloitik malda bat igo eta eskola parean

Bakarrik eskolara

zebra-bidetik pasatzea da egunero egin behar duen gauza bakarra. Ez zaio inoiz ezer pasatu. Ez zaio inoiz inori ezer pasatu bide horretan. Gurasoek arazoren bat ote

zuten galdetu nuen orduan, ez baintuen ezagutzen. Ezetz erantzun zidaten, haurrak bakarrik joan nahi zuela eskolara eta bere nahia errespetatzen zutela, besterik gabe. Nik arazoa ez nuen inon ikusten, baina 600 biztanle inguruko herri hartan hizketa gaia zen eskolara bakarrik joan nahi zuen haurrarena. Eta ez ziren ari hiru urteko haur batez. Arau ez idatzia da autoz eramatea ateraino, ahal bada, noranahiko batean. ■

